

2021eko aurrekontuak onartu dituzte

PSE-EE eta PNVren bozkek ahalbidetu dute onarpena; EH Bilduk eta ELOPek, berriz, aurka egin dute. Udal Gobernuak 2021-2021 inbertsio-plana aurkeztu du aste honetan / 6-7

Froilan Elespe oroitu du PSE-EEK, ETAK zinegotzi ohia hil zuenetik 20 urte bete direnean / 2

Udal eraikinetako garbitzaileek protesta egin, eta "negoiaztera jaisteko" eskatu diote Udal Gobernuari / 3

ORDU ALDAKETA

Udako ordutegia estreinatuko dugu igandean:
02:00etan
03:00ak
izango dira



Denboraldi-aurrea hasi dute traineruek; Arraun Lagunak taldeak Oriaren jaitsierako bandera eskuratu du / 10



Umorea, feminismonik aztergai

Lisipe bildumako saiakera berria osatu du Ane Labaka Mayoz herritarrek / 4

TXINTXARRI

ILLARRETA
ITURGINTZA
IGELTSERITZA

- KONPONKETAK ETA ERAIKUNTZA zink, berun eta arbelean
- INSTALAZIOAK
- IGELTSERITZA OROKORRA
- GREMIOEN KOORDINAZIOA
- ETXEBIZITZEN ETA LOKALEN BERRIKUNTZA OSOA

BULEGOA:
Geltoki kalea 14 - Lasarte-Oria
Tel. 606 68 66 15 eta 943 36 17 52

Trasteleku eta gordelekuak alokairua Urnietan

TRASTELEKUAK
44€
2 m² / BEZa barne

GORDELEKUAK
97€
5 m² / BEZa barne

barnE

605713127

Igarategi Industrialdea 70. URNIETA
Bulegoa: Muebles Iturbe
barne.eus

2car Zumaburu kalea 18 LASARTE-ORIA
Tel: 943 36 24 63
Gerturatu gure tailerrera!

Continental
The Future in Motion

adidas

Eskura ezazu 80 € arteko adidas txartel oparia Continental* erosteagatik
*Maiztaren 1era arte

Continental-i esker heldulekurik egokiena zure automobil eta adidas zapatillentzat



Dozenaka lagun eta alderdikide elkartu ziren Lasarte-Oriako alkateorde izandakoaren hilobiaren inguruan. TXINTXARRI

Sozialistek Froilan Elespe gogoratu dute

Bi hamarkada bete dira martxoaren 20an ETak Lasarte-Oriako alkateorde eta PSE-EEko alderdikidea erail zuenetik. Itxialdiak eragindako iazko hutsunearen ondoren, zinegotzi izandakoaren gertukoak eta ordezkari sozialistak Illarraltzueta hilerrian batu dira

Txintxarri

Hilerriko atarian jendea pilatzen joan zen larunbat goizean ordulariaren orratzek eguerdia erakutsi zuten arte. Orduan, ordezkari politikoak buru, eta haien artean Josu eta Andoni, Froilan Elesperen bi semeak zeudela, sarreratik hobira arteko bidea egin zuten elkarrekin. Hilarri gaineen zeuden lore gorri eta zuriei beste bi sorta gehitu zizkieten; bata, Iñaki Mugicak jarri zuen Lasarte-Oriako PSE-EEren izenean, bestea, Gipuzkoako alderdiko kideek.

Alderdiko ordezkari zabalak bildu zen oroitza ekitaldian, besteak beste, Lasarte-Oriako alkate Agustin Valdivia, Euskadiko PSE-EEko idazkari nagusi Idoia Mendia, Gipuzkoako idazkari Nagusi Eneko Andueza, Jose Ignacio Asensio, Harkaitz Millan eta Rafaela Romero foru diputatuak edota Espainiako Gobernuak EAEn duen ordezkari Denis Itxaso. Halaber, Jesus Zaballós eta Ana Urtxuegia alkate

ohiak ere izan ziren bertaratuen artean. Tomasi Pelaz, Elesperen alarguna, berriz, ez zen izan.

Eredua eta bizipena

Lore eskaintzaren ondoren, hitza hartu zuen Anduezak, alkatea eta lehendakariordea albo banatan zituela. ETak 2001eko matxoaren 20an erail zuen tiroz zinegotzi sozialista Sasoetako taberna batean zegoela, eta 20 urte geroago haren irudia eta eredua gogoratzeak duen garrantzia nabarmendu zuen. [Oroitza ekitaldiaren bidez] "Gure errealitatea eta gure errelatoa egiten dugu, ezinbestekoa da elkarbizitza sendo bat lortzeko". Denon egia, "salbuespenik gabe" ezagutzea oso beharrezkotzat jo

GIPUZKOAKO ALDERDI SOZIALISTAKO ORDEZKARITZA ZABALA BERTARATU DA HILERRIRA

zuen, eta eragindako minaren erantzukizuna aitortzeko eta barkamena eskatzeko "ausardia" izan dezatela eskatu zien "jazartzen gintuen inguru horren parte" zirenei. Ildo beretik, alkateorde izandakoaren semeak "gizatasun eta soiltasun adibide onena" direla adierazi zuen eta "harro" sentiarazten duela sozialista eta haien gertuko izateak.

Elespe futbolzale amorratua zela eta, "albiste onak" ekarri zizkion Anduezak, izan ere, Realak apirilaren 3an jokatzekoa baita Kopako finala. Garaipena lortzekotan, "zalantzarik ez dut zauden tokian zaudela asko poztu eta errealtza gisa ospatuko duzula". Orainaldian esan zituen hitz horiek alkateorde izandakoa "presente baitago".

La Internacional abestu eta txaloekin bukatu zuten ekitaldia. Pandemiaren ondorioz aurten ez dute Froilan Elespe saria banatu. Iaz, itxialdia tarteko, omenaldia etxetik egin behar izan zuten.



Ostegun goizean aurkeztu dituzte 2021eko ikastaroak, Gaztelekuan. TXINTXARRI

Gazte zein helduentzako 2021eko ikastaroak aurkeztuta

2020an, pandemiak eragindako egoera medio, bertan behera geratu ziren. Eskaintza zabala ekarri dute aurten

Txintxarri

Urtero bezala, aurtengo eskaintza ere gazteei eta helduei zuzenduta dago. Bi seihilabetekotan banatu dituzte ikastaroak (bietan ikastaro berdinak izango dira), eta lehenengo seihilabetekoetan izena emateko epea martxoaren 29an irekiko da eta apirilaren 9an itxi. Plazak mugatuak direla jakinarazi dute udal ordezkariak, eta argitu, plaza kopurua baino izen-emate gehiago gertatzen diren kasuetan zozketa egingo dutela eta zozketan plaza lortu ez dutenek bigarren seihilekoko ikastaroan parte hartzeko lehentasuna izango dutela. Ikastaroek aurrera egiteko gutxieneko izen-emate kopuru bat bete beharko dute. Izena emateko aukera ezberdinak daude. Aurrez aurre. Manuel Lekuona kultur etxean edo Gaztelekuan. Telefonoz ere bada horretarako aukera, 943 37 61 81 zenbakira deituta; eta online, www.lasarte-oria.eus helbidean. Horrez gain, etxetik ere banatuko dituzten eskuorrietan agertzen den QR kodea eskaneatuta ere eman ahal izango da izena.

Helduen ikastaroak

Helduentzako argazkigintza (hastapena), genealogia, Gipuzkoako historia, Gorputz-jarrerak heziketa, landare sendagarriak, meditazioa, memoria, sabel dantza, Taichi, moda zirkularra eta zurlanketa tailerrak antolatu dituzte. Erroldatuentzat eta ez erroldatuentzat prezio ezberdinak izango dituzte ikastaroak, eta

zurlanketarena urte osokoa izango da.

Gazteen ikastaroak

Gazteentzako ere aukera zabala izango da. Bizikletak konprontzeko, eskola-laguntza, komikiak, moda zirkularra arropen estanzak eta dekorazioa, parkour eta ukelele ikastaroak egingo dira bi seihilabetekoetan. Lehenengo biak doakoak izango dira, eta gainerakoak ordaindu egin beharko dituzte. Gazteen ikastaroen kasuen ere prezioak ezberdinak izango dira Lasarte-Orian erroldatutakoentzat eta ez erroldatuentzat. Horrez gain, gazte-txartela erakusten dutenek bonifikazioa izango dute, %10.

Dantza

Dantza ikastaroetan parte hartu nahi dutenek maiatzaren 10etik 21era egin beharko dute aurrematrikula, eta ekainaren 7tik 18ra, berriz, matrikula. Jaiotza-urtearen arabera asteko egun zehatz batean izango dituzte saioak; guztiak izango dira arrotsaldez. Kasu honetan ere, erroldatuentzat prezio bat zehaztu dute eta ez erroldatuentzat, beste bat, eta urri hasieratik 2022ko ekainera izango dira dantza ikastaroak.

Auzoetan ekintza ezberdinak ere egingo dituztela iragarri dute. Maiatzean eta urrian izango dira horiek.

Ikastaro eta ekintzen informazio osagarria www.txintxarri.eus atarian kontsulta dezakezue.

Udal eraikinetako garbitzaileak protestan

ELA eta ESK sindikatuak salatu dute garbiketa zerbitzua kudeatzen duen enpresak ematen duen zerbitzua ez datorrela bat pleguetan jasotzen denarekin. Sindikatu horiek deituta, protesta egin dute udal eraikinetan garbitzen dituzten langileek

Txintxarri

Asteazken goizean protesta egin dute Lasarte-Oriako udal eraikinetan garbitzen dituzten langileek, ELA eta ESK sindikatuak babestuta. 11:30ean elkartu dira Okendo plazan, eta aldarrikapen ugari egin dituzte. Lasarte-Oriako Udalak udal eraikinen garbiketa azpikontratatu dauka, eta otsailaz geroztik, enpresa berri batek kudeatzen du zerbitzua. Udal eraikinen garbiketa zerbitzua bi urtean behin ateratzen da enkantera, eta zerbitzu horren baldintzak pleguetan zehazten dituzte.

ELA eta ESK sindikatuak salatu dutenez, ordea, gaur egun garbiketa zerbitzua kudeatzen duen enpresak ematen duen zerbitzua ez dator bat pleguetan jasotzen denarekin. Jakinarazi dutenez ematen ari den zerbitzuak "alde nabarmena" du baldintzetan zehaztutakoarekin: "Zerbitzu horren atzean garbitzaileen jardunaldiak daude. 23 emakumez osatutako kolektibo bat da: udaletxearentzako lanean urte mordoak egon ondoren, orain, udalaren utzikeriagatik kaltetua izango da".

Garbitzaileak jasaten ari diren egoerari irtenbide bat topatu nahian aritu dira garbitzaileak



Okendo plazan egin dute mobilizazioa, asteazken goizean. TXINTXARRI

eta sindikatuak Lasarte-Oriako Udalarekin. ELA eta ESK-k jakinarazi dute aukera egon dela pleguak errealitatera egokituz zerbitzua eta langileen lan-jarduna 16,5 ordutan hobetzeko, baina proposamen horri udalak emandako erantzunarekin "zur eta lur" geratu dira sindikatuak: zerbitzu horretan lanean ari diren langileak ez direla udal langileak eta hitz egitekorik ez dagoela erantzun diete.

Horren aurrean, zerbitzuaren kudeaketa "negargarriaren"

kaltetuak langileak izango direla ekarri dute gogora: "Esentzialak deituko dituztenak, garbitzaileak eta udal eraikinen garbiketa".

Lasarte-Oriako PSE-EE alderdiari zuzendu dizkiote aldarri guztiak. Negoziatzera jaisteko eskatu diote eta gogorarazi, beharrezko zerbitzua dela eskaintzen dutena, garbiketarena.

EH Bildu eta ELOP Elkarrekin Lasarte-Oria Puede alderdietako ordezkariak bat egin dute mobilizazioarekin, eta Okendo plazako protestan egon dira.



NEURE KABUZ

MIKEL YARZA ARTOLA

Eguzkiaren irribarrea

Ekaitza dator eta uste dut luze joko duela, barealdia heldu bitartean. Leioaren beste aldera begiratu dut. Euria ari du goitik behera eta laino beltzek argi izpiak estali dituzte. Bat-batean, trumoi baten hotsak dardara eragin du sukalde hotzean. Lurrera jausi da mahai gaineko katilua. Goraino beteta zegoen eta mila zatitan apurtu da.

Egonezinak bultzatuta, etxetik irten naiz eta euripean murgildu, enbataren bihotzera iritsi nahian. Ustekabea, haize ufada bortitz batek astindu nau. Boladak dira eta joan etorrian dabilta, gora eta behera, ezker eta eskuin, karrusel baten antzera. Abenturak dibertigarria zirudien hasieran, baina buruhauste bilakatu da berehala. Poza eta tristura, lasaitasuna eta ezinegona, konfiantza eta izua. Denetarik senti dezaket haizeak gorputza goitik behera kolpatzen didan bakoitzean.

Euri jasa geroz eta indartsuagoa bilakatu da, lokatz artean irrist egin dut birritan eta lurrera erori naiz. Beldur naiz, ekaitza ez ote den nire inguruan betirako geratuko. Une horretantxe bistaratu dut zeruko ostartea. Giroa baretzen hasi da eta etxerako bidea hartu dut, pauso lasaian. Atarira heltzean, eguzkiaren irribarrea sumatu dut nire gainean. Zapata eta jantzi bustiak erantzi, haize epeletan lehortzen utzi eta isilpean sartu naiz sukaldara. Atea irekita utzi dut, eguzki izpiak barruraino sar daitezen.



TXINTXARRI

Sozioekonomian eragiteko

Maiatzaren 5ean eta 6an egingo dituzte aurtengo Udaltop Udaletako Euskara Zerbitzuen Topaketak. Iragan edizioa bezala, online izango da aurtengoa ere eta eremu sozioekonomikoan euskararen erabilera sustatzeko gakoak emango dituztela iragarri dute. Izen ematea zabalik dago jada, eta apirilaren 23ra arte izango da horretarako aukera, ostiralez, www.udaltop.eus webgunean.

MOTORRAREN GIDA

Esku ezin hobean eta Lasarte-Orian!

txintxarri

Apiriletik urrira bitarte publikatuko dugu paperean, hilabetean behin!

GIDAN PARTE HARTZEKO: publizitatea@ttakun.eus | 943 37 14 48 (106) | 646 82 44 66



Ane Labaka Mayozerk umoreari buruz aurrez egin dituen ikerlanak oinarri hartu ditu saiakera idazteko. TXINTXARRI

Barrearen boterea eta kontraboterea, aztergai

Ane Labaka Mayozerk 'Algara mutilatuak. Umorearen ahobikotasunaz, feminismotik' entsegua aurkeztu du astelehenean Donostiako Udal Liburutegian. Genero-sistemak umorean duen eragina eta umorearen transgresio gaitasuna ikertu ditu lasarteoriatarak

Txintxarri

Lagun artean aurkeztu du aste honetan Ane Labaka Mayozerk (Lasarte-Oria, 1992) *Algara mutilatuak. Umorearen ahobikotasunaz, feminismotik* saiakeran. Susa argitaletxearen Lisipe bilduma feministaren ale berria osatu du eta izenburua ekitaldian egon zen Bea Egizabalek *Erradikalak gara* ikuskizunean egindako hitz joko bat da. Halaber, argi uzten du aztergaia zein den.

Umoreari lotuta bi lerro landu ditu lasarteoriatarak: Batetik, genero-sistemak haren garapenean duen eragina, eta bestetik, umorearen erabilera sistema horren erresistentziarako edo transgresiorako bide bezala. Alor horretan egileak emandako beste pauso bat da, liburuaren funtsa Gizarte Antropologia nahiz Ikasketa Feministak eta Generokoak masterretan gauzatutako ikerketa lanak baitira. Tiraderan gordeta utzi zituen bolada batez, obra idaztea erabaki zuen arte.

Bilduta zuenari gehitu dizkio Uxo Anduagaren *Herri barrez: Umore bidezko euskal nazioaren eraketa prozesua* tesiaren oinarri teorikoa eta hainbat elkarrizketa. "Opari handi" izan diren Aitziber Garmendia, Idoia Torregarai, Irantzu Varela eta Egizabal berarekin partekatutako solasaldiak eta zenbait oholtzakiderekiz izandakoak.

Hutsune bat gogoan

Feminismoa eta plaza andreei buruz ikertutakoa begiratzean, ohartu zen umorea askotan zeharka aipatu arren, inork heltzen ez zion gaia zela. Labakak horri ekin zionean, ikastaroak nahiz hitzaldiak emateko aukera izan zuen eta partaideei bertsolari

UMOREARI LOTUTA DITUEN MINEZ ETA HAUEN JATORRIAZ JABETU DELA AITORTU DU EGILEAK

umoretsuak izendatzeko eskatzen zien. Haiek generoaren arabera zerrendatzean, emakumeen zutabea hutsik gelditzen zen. Hutsune hori gogoan zuela idatzi du *Algara mutilatuak*.

Iturburuan gaia "ausaz" aukeratu zuela uste bazuen ere, sakontzen joan zen heinean, hala ez zela ohartu zen. "Askotan sentitu dut elkarrizketatuek ispilu bat jartzen zidatela aurrean. Deskubritu dut zer min edo zauri propio neuzkan umoreari lotuta eta nondik zetozen".

Bost ataletan banatutako 112 orrietan, Labakak, besteak beste, jorratu du umorearen seriotasuna, "botereak bere mesedera garrantzia gutxikotzat saltzen duenaren benetako garrantzia"; haren noranzko eta norabideak, hau da, botere nahiz kontrabotere izaera; mugak, "politikoki zuzena deritzogunaren tranpa"; edota publiko aurrean umorea egiteko zilegitasuna. Amaierako atalean, umore berrietara bidea egiteko proposamena ere jaso du egileak.



Kulturari eta bertsolaritzari leiho bat zabaltzen

Lerro hauen azpikoaren gisako bertsoak irakurri ahal izango dituzue datozen hilabeteetan, herriko Earra! bertso eskolan aurtengo ikasturtean errimekin, doinuekin, hitzekin eta euskararekin lanean eta jolasean ari diren ikasle finen eskutik. Eskolak eta TXINTXARRI-k martxan jarritako egitasmo honen helburua da kulturari leiho bat zabaltzea.

Martxoko bertsoa

Doinua: *Itsasori begira*

Erreferentzi matxistak nonahi, telesail, film zein liburu. Urdin ta arrosaz nazkatu gara ortzadarrak nahi ditugu kalera irten nahiko genuke beldurrik gabe, seguru. Etorkizuna hobetzekotan denok lanean dihardugu; martxoak 8 behar ez duen mundu polit bat nahi dugu.

DBH1 taldea: Araitx, Urko eta Maddi

Kontzientziatik, ametsetara

Ganso&Cia konpainiak *Alpha* obra taularatu zuen iragan asteko larunbatean. Antzezlan horri izena ematen dion hitzak islatzen du kontzientziatik ametsen mundura igarotzeko une hori.

Alpha-ren pertsonaia bere fantasien biktima da. Ukitu komiko baten bitartez, antzezlanak beldur eta sentimendu unibertsalei buruz barre egiteko aukera ematen du.



Hitz-joko batetik hasita, munduaren amaieraraino

'El Sitio del Fin del Mundo' izena du Pablo Barrio lasarteoriatarak argitaratu duen azken lanak: emakume pirata baten istorioa kontatu du idazleak liburu horretan. Antonio Mercero aretoan aurkeztu du fabula literarioa, Tasio Arrizabalaga eta Intza Alkainen laguntzarekin

Iñigo Gonzalez Sarobe

"Egile batzuek, idazten hasten direnerako, guzti-guztia buruan dute, eskema osoa; ni ez naiz horrelakoa, idazten hasi eta gero osatzen dut kontakizuna". Pablo Barrioren (Agurain, 1958) hitzak dira. Esaldi hori hobeto ulertzeko, honako adibide hau jarri du: "Zenbait pertsonak, bidaia bat egiterakoan, eta abenturan murgildu aurretik, erabakita dute den-dena: nora eta noiz joango diren, zer ordutan sartuko diren museora, turismo-gida guztiak irakurrita eramaten dituzte... Nik, aldiz, badakit etxetik atera eta norabait joan nahi dudala, baina abiatu aurretik ez dakit; bidea egin ahala deskubritzen dut".

Barrioren azken bidaia literarioak zehazki nora eramaten gaituen jakiteko, Txertoa argitaletxearekin argitaratu duen *El Sitio del Fin del Mundo* liburuak irakurri behar, baina, gutxienez, badakigu mundua amaitzen den tokia izango dela bat, eta, bestea, Bizkaiko golko inguruan kokatzen den La Flamenka taberna. Protagonista nagusia ostatu horren jabea da, emakume adindu bat, baina pirata-izpiritua bizi-bizi duena. Ekaitz latz bat tarteko, gizon gazte bat bertara sartuko da, eta orduan egiaztatuko

du hori horrela dela, tabernaria pirata izan zela gazte garaietan, eta zahartzaroak ez diola grina hori itzali.

Abiapuntua, hitz-joko bat

El Sitio del Fin del Mundo, Barrioren azken lanaren izenburua, "hitz-joko bat" dela azaldu du idazleak. Liburuaren aurkezpenean ez dute horren funtsa azaldu; hori zertan den jakin nahi duenak, poesia-egitura duen narrazio hori irakurri beharko du. Gizartean eta barku piratetan bezala, literaturan ere kode batzuk daude: horien artean, hitzen jolas horren esanahi zehatza norberak deskubritzearen abentura ez zapuztea. Idazleak berak ez badu egin, kronika hau idazten ari den kazetaria ez da horren aurka matxinatuko.

Hitz-joko horrek piztu zuen kontakizunaren txinparta, Barrio politikagintzan murgildu aurretik –2011-2015 legealdian herriko alkatea izan zen, eta hurrengoan, hautagai–. "Zortzi urte horietan

POLITIKAGINTZA UTZI ETA GERO BERREKIN ZION BARRIOK ISTORIOARI, 2019. URTEAN

ez nuen ezer idatzi; politika uztean berrekin nion istorioari", azaldu du Barriok. Idazki ugari zituen idatzita lehendik. 2019an piratei buruzko istorioa berrartu zuen, eta zenbait moldaketa egin: tartean, protagonista emakumea izatea, eta ez gizona. "Gaur aurkezten dudana liburuak idazten hasi nintzenean, mugimendu feministak ez zeukan gaur egun duen indarra, eta ez zitzaidan burutik pasa ere egin protagonista emakume pirata bat izatearena".

Liburuaren aurkezpenean, protagonistaren izaeraren zertzelada batzuk eman ditu Intza Alkain aktore lasarteoriatarak: *El Sitio del Fin del Mundo*-ren pasarte batzuk irakurri ditu. Horri esker jakin dute ikus-entzuleek nolakoa den tabernari bihurtu zen pirata horren bizitza-filosofia: "Pirata batek, are gehiago emakumezko batek, ez du sekula itxaroten, abenturak bizitzeari ekiten dio, abenturak bizitzen ditu. Itxaropena esklabuen sentimendu bat da". Alkain ez ezik, Tasio Arrizabalaga ere lagun izan du Barriok aurkezpenean; hark gidatu du ekitaldia, eta idatzi duen fabula literarioari buruzko galderak egin dizkio. Mercero aretora gerturatu diren zenbait herritar ere animatu dira



Pablo Barrio idazlea (eskuinean), liburuari buruzko azalpenak ematen. TXINTXARRI



Intza Alkainen bidez (ezkerrean) ezagutu zuten pertsonaia nagusia. TXINTXARRI

liburuaren gaineko gogoetak egin eta partekatzeraz.

Narrazioa, antzerkia, poesia...

Idazleak esplikatu duenez, *El Sitio del Fin del Mundo* fabula literario bat da, narrazio bat, baina baita bakarrizketa teatral bat ere. Liburuak hartu eta irakurtzen hastean, poesiarekin ere identifika daiteke, orrien egitura genero horretan erabiltzen denaren oso antzekoa baita.

Literatura-ibilbide oparoa egin du Barriok, eta, aurkeztu duen lana osatu aurretik, beste hainbat argitaratu ditu, antzerkiak batez

ere –sariak ere jaso ditu–. *El Sitio del Fin del Mundo* ikusiko ote dugu inoiz, adibide bat jartzearren, Manuel Lekuona kultur etxeko oholtzan? Hori izan da Arrizabalagak idazleari egin dion galderetako bat. "Nork daki, ederra izango litzateke hori", esan du Barriok.

Honaino aurkezpen-ekitaldiaren kronika. Gehiago jakin nahi duenak, pirata protagonistaren filosofia jarrai dezake, eta, etxean itxaroten egon beharrean, abentura literario horretan murgildu. Herriko zenbait dendatan eskura daiteke liburuak, eta Txertoa argitaletxearen bidez ere bai.

111 Akademiaren Sariko finalean dago Idoia Garzes herritarra

Akademiako kideek aukeratutako bost lanetako bat izan da lasarteoriatarak idatzitako 'Mendiko gaitza' eleberria

Txintxarri

Iazko urtean euskal literaturak utzitako uzta zabaletik 2020ko onena hautatzeko lanean dabil 111 Akademia. Lehen bozaketan 92 kidek eman dute boza eta bigarrenarako bost lanak aukeratu

dituzte. Idoia Garzes herritarraren *Mendiko gaitza*, Joxean Agirreren *Nobela errealista bat*, Uxue Alberdiren *Dendaostekoak*, Luis Garderen *Aireportuko musika* eta Pello Lizarralderen *Argiantza*, hain zuzen ere.

Ostirala arte dute akademiakideek horietako baten alde egiteko, martxoak 26. Hautagaietako batek bozen %40 jasoko balu, huraxe izendatuko dute saridun, bestela, bi lan bozkatuenak pasako dira finalera. Edonola, apiril amaieran ezagutaraziko dute irabazlea.

Garzesek 2020ko urrian argitaratu zuen eleberria Elkar argitaletxearekin, 2019an Augustin Zubikarai nobela-beka lehiaketa irabazi eta gero. Helduentzat idatzi duen lehen eleberria da.



Idoia Garzes idazlea, artxiboko irudi batean. TXINTXARRI



Martxoaren 17an, ezohiko udalbatzarrean, 2021. urteko aurrekontuak onartu ziren. TXINTXARRI

Aurrekontuak, aurrera

PSE-EE eta EAJ-PNV alderdien bozkek ahalbidetu dute aurrekontuen onarpena. PSE-EE "pozik" dago elkarlanean adostutako dokumentua delako. EH Bildu eta ELOP ez datoz bat aurrekontuetako inbertsioak egiteko aurkeztu den plan estrategikoarekin

Txintxarri

Ezohiko udalbatzarra izan zen martxoaren 17an, Lasarte-Oriako Udalean. Gai garrantzitsua zegoen mahai gainean, 2021. urteko aurrekontuak. Horri heldu baino lehen, alkateak 2021-2023 urteetan zehar egingo den inbertsio plan estrategikoa aurkeztu zien gainerako alderdiei.

Jarraian aurrekontuak landu zituzten, Ogasun batzordean onartu ez ziren aurrekontuei egindako hamar emendakin aztertuz: EH Bilduren zazpi, Elkarrekin Lasarte-Oria Puede ELOP-en bi eta EAJ-PNVren bat.

Bakarra onartu

Etxebizitza sozialen gaia aztertzeko proposamenak, COVID-19ari aurre egiteko elkartei laguntza-lerro zuzena sortzea, kiroldegi berriaren barne-kudeaketa zehaztuko duen azterketa egitea, esku-hartze sozioedukatibo eta psikosozialeko partida 100.000 euro gehiago handitzea, pobrezia energetikoari

aurre egiteko familiei zuzendutako laguntza handitzea edo animalien aisialdirako gune mugatu bat egiteko azterketa bertan behera geratu ziren. EAJ-PNVren Zumaburu parkeko argiteria eta hesien berrikuntzaren proposamena aurrera atera zen bakarra.

EH Bilduk, ordea, arrakala energetikoari aurre egiteko laguntza atzera bota zuen, alkatearekin zaurgarritasun egoeran dauden herritarrei zuzendutako laguntzetan proposatutako lerroa txertatu eta lerro horretako kopurua 20.000 euro gehitzea adostu otean.

Aurrekontuak bozkatu baino lehen, kontu-hartzaileak udal plantila organikoaren erregulazioari ezarritako prosedura eteta atzera bota behar izan zuten udal gobernuko bozkekin. Puntu honek eztabaida luzea sortu zuen zinegotzien eta idazkariaren zein kontu-hartzailearen artean.

PSE-EEK eta EAJ-PNVk aurrekontuen alde egin zuten; EH Bilduk eta ELOPek, ordea, aurka.

Ez guztiak bat

PSE-EEKo alkatea Agustin Valdivia "pozik" agertu zen onarpenarekin eta eskerrak eman zizkien alderdiei aurrekontu hauek lantzeko garaian izan duten prestutasunarengatik. Bereziki, EAJ-PNVri eskertu dio aurrekontuen aldeko bozka emateko pausoa emateagatik.

Era berean, aurrekontu horiek alderdi guztiek landutakoak izan direla nabarmendu zuen. "Udal-talde guztiekin batu gara, eta ez behin bakarrik: hiru edo lau bilera egin ditugu batzuekin eta euren proposamenak txertatu ditugu aurrekontuetan. Lanketa hau bai inbertsio plana, bai aurrekontuak zehazteko egin dugu".

Egun herriari eman beharreko egonkortasunarentzako indarren batura beharrezkoa dela

Aurrekontuek, bi ardatz

Lasarte-Oriak 2021. urtean 35.645.336 euroko aurrekontua izango du, bi ardatz nagusitan banatuta: COVID-19aren pandemiak sortutako zailtasunei aurre egiteko laguntza lerro ezberdinak, eta inbertsioak (ikus hurrengo orrialdea).

Laguntza eta inbertsio horiek guztiak aurrera eramateko 2020. urteko soberakinaren menpe dagoen arren, udal-arduradunak itxaropentsu daude gubxi gorabehera 4.000.000 eurokoa izatea espero dute-eta.

Laguntzak

Familientzako laguntzak

Babesgabezia-egoeran dauden pertsonentzako laguntzak	320.000 euro
Gizarte-larrialdietarako laguntzak	200.000 euro
Familientzako laguntzen partidarako	30.000 euro
Programa sozialak dituzten elkartei transferentziak	25.000 euro
Ikasturtearen hasieran eskola-materiala erosteko kanpaina	15.000 euro
Pobrezia energetikoaren kontrako laguntza	2.000 euro

Horrez gain, Gizarte Zerbitzuetako arloan, gizarte eta hezkuntzako esku-hartze arloan lizitazio berria izango da, 439.837 euro.

Enpresentzako eta ostalarientzako laguntzak

Merkataritzarako, ostalaritzarako eta zerbitzu pertsonaletarako zuzeneko laguntzak	400.000 euro
Herriko establezimenduetan kontsumitzeko bonuen kanpaina	200.000 euro
Beterri-Buruntza eskualdearen garapen agentziako hitzarmena	272.226 euro
Establezimendu berriak sortzeko eta ekintzaileei laguntzeko lerroa	40.000 euro
Merkataritza Suspertzeko Plan Berezi berriaren idazketa	30.000 euro
Merkataritza dinamizatzeko jarduerak sustatzeko, Aterpea elkartearekin sinatutako hitzarmena	25.000 euro

Elkartei babesa

Bi lerro nagusiez gain, herriko elkarteek hiru urteko hitzarmenak izango dituzte. Horretarako, 408.583 euro bideratuko ditu Udalak. Era berean, elkarteek urtean zehar hainbat arloetan (Kultura, Kirola, Gazteria edo Herritarren parte-hartzea) egitasmoak garatzeko 175.851 euroko partida izango da.

azpimarratu zuen EAJ-PNVk bere bozka-azalpenean. Alderdi jeltzalearen hitzetan, aldeko bozkaren arrazoirik nagusia udal gobernu eta alderdi jeltzalearen arteko negoziaketetako hainbat puntu txertatu izana da.

ELOPek azaldu zuenez, udalak egin nahi dituen inbertsioak beharrezkoak ikusten ditu, baina ez dator bat inbertsio horiek aurrera eramateko egingo den plan estrategikoarekin. "Zorpetzeko garaia dela eta patrimonioa saldu edo mailegua eskatzea aukera bat ez dela uste dugu. Proposamen zuhurragoa espero genuen".

EH Bilduren iritziz, onartutako aurrekontuek ez diete behar bezala erantzuten Lasarte-Oriako beharrei. "Gure herriko egoera sozialari eta COVID-19aren krisiak areagotu dituen beharrei ez zaie behar bezala erantzuten. Adibide gisa, gizarteratzeko udal-

laguntzak 37.000 euro baino ez dira hazi 2019ko aurrekontuekin alderatuta".

Berdintasun politikei dagokien ere, "ez ditu Udalean berdintasun-politikak modu integralean ahalbideratzeko nahikoa baliabide pertsonal eta ekonomiko txertatzen, berdintasun-teknikari eta berdintasun-sailik gabe jarraituko du", adierazi zuen Jon Martin bozeramaileak.

Era berean, aurrekontuek herrian dagoen etxebizitzaren arazoari erantzunik ematen ez duela ere azpimarratu zuen. EH Bilduren aburuz, inbertsio planak "gure herrian etxebizitza-espekulaziori atea zabaltu eta arazoa gehiago areagotuko du. Salmenta egitasmo horrek datozen urtetan Udaletik etxebizitza-politika publikoak abian jartzea ezinezkoa egingo du, eta etorkizuneko udal gobernuak hipotekatuko ditu".

32.411.644 euro datozen hiru urtetan inbertitzeko

Martxoaren 22an aurkeztu dute Agustin Valdivia alkateak eta Iñigo Zabaleta Ogasun batzordeburuak 2021-2023 urteetarako "atzeratu ezin diren" inbertsioen plan estrategikoa, astelehenarekin. Bost ardatzetan banatu dituzte

Txintxarri
Lasarte-Oriako Udalak aurkeztu du datozen hiru urteetan "atzeratu ezin diren" inbertsioen plan estrategikoa (2021-2023). Bertan bildutako inbertsio guztiek kirol-instalazioen, auzoen, ikastetxeen, ingurugiroaren eta irisgarritasunaren beharrak

asetzen dituztela azaldu du Agustin Valdivia alkateak, astelehen goizean egin duen agerraldian. Udalak "beharrezkotzat" jo du inbertsio horiek antolatzea ahalbidetuko dion tresna, 2021-2023 hirurtekoan Lasarte-Oriako udal-aurrekontuetan izango duen eragin handiagatik. Guztira

32.411.644 euro bideratuko dituzte aurreikusitako inbertsioak egitera. Jakinarazi du baita ere inbertsio guztiak aurrera eraman ahal izateko 23.237.462,50 euroko balioa duen udal-ondarea salduko dutela, eta 12.000.000 euroko mailegu bat eskatuko dutela.

2021. urterako inbertsioak
• Kiroldegi berria Michelinen (2021-2023 konpromiso kreditua) 4.653.100 euro • Atsobakar kirol-zelaia 4.223.000 euro • Jaizkibel plazako etxabeen berrurbanizazio 1.100.000 euro • Argiteria publikoa LEDera aldatzea 975.000 euro • Skate eta parkour pista berria 365.000 euro • Azterlanak eta proiektuak 260.000 euro • Kultur etxearen estalki berria 200.000 euro • Karmengo kaperaren zaharberritzea 180.000 euro • Komun publikoak Plazaolan eta Tximistarretan 122.124 euro • Sasoeta Sasoian auzo-elkartearen lokalaren egokitzea 110.000 euro • Irisgarritasun planeko obrak 100.000 euro

2022. urterako inbertsioak
• Kiroldegi berria Michelinen (2021-2023 konpromiso kreditua) 5.253.500 euro • Erriberaren berrurbanizatzeari, bidegorri berria eta kirol pista 3.013.000 euro • Zabaleta auzora igotzeko igogailua 1.320.000 euro • Argiteria publikoa LEDera aldatzea 677.500 euro • Kultur etxeko kafetegia eraberritzea eta klimatizazio 400.000 euro • Estudioak eta proiektuak 200.000 euro • Irisgarritasun planetako obrak 100.000 euro

2023. urterako inbertsioak
• Kiroldegi berria Michelinen (2021-2023 konpromiso kreditua) 5.103.400 euro • Argiteria publikoa LEDera aldatzea 787.500 euro • Nagusia-Goikaleko igogailua 412.500 euro • Askatasunaren parkearen berrurbanizazioa 300.000 euro • Kultur etxearen larrialdi-plana 200.000 euro • Azterlanak eta proiektuak 200.000 euro • Irisgarritasun-planeko obrak 100.000 euro

2020ko likidazio gerakina
Inbertsio horiez gain, hiru urteko planak aurreikusten du 2020ko gerakina likidatu ondoren honako inbertsio hauek ere egitea: Berrurbanizazioa Kale Nagusia 63-87n 775.000 euro Barandak aldatzea Arranbide eta San Frantzisko kaleetan 382.292 euro Saneamendua-sarean obrak 443.355 euro Lurpeko edukiontzia egokitzea 340.035 euro Tribunas eremuko parkean berrurbanizazioa 300.000 euro

Inbertsio errealeen besterentzea
• Urbanizazioko kuotak eta aprobetxamendu urbanistikoak 460.875,12 euro • a.3.1/3, a.3.1/4. (AIU A.35 Zabaleta Berri) lurzatiak besterentzea 1.006.462,87 euro • a.3.1 VPO 1/2/3. (AIU A.36 Zatarain) lurzatiak besterentzea 2.952.920,70 euro • 14zk.ko lurzatia besterentzea (AIU A.36 Zatarain) 848.074,55 euro • Beheko kale 14-16 (aparkalekua) lurzatiak besterentzea 4.767.865,84 euro • Beheko kale 14-16 lurzatiak besterentzea 665.614,76 euro • 39 etxebizitza eta garaje Hipodromo etorbidea 5-7 besterentzea 11.838.587,26 euro • 4 lokal (Hipodromo etorbidea 5-7) besterentzea 697.061,40 euro • Guztira: 23.237.462,50 euro

Inbertsio errealeen besterentzea-Maileguak
• Guztira: 12.504.148,13 euro

IDATZIA

LASARTE-MORIA, ASUNAK TALDEA, SORGIN JALETAKO TALDE FEMINISTA

Lasarte: kaso aparte

Lasarte-Oriako Udal gobernua berriki onartutako 2021eko aurrekontuen harira, eta azaroaren 25aren harira TXINTXARRI-ra bidali genuen testuan jakitera eman genuen bezala, sexu-genero eta berdintasun gaiei dagokionez Lasarte-Oriako egoera kezagarria dela salatu nahi dugu herriko eragile feministok. Gogora dezagun; udalak berak eman zituen datu larri horiek: “Espainiar Estatuan datuek behera egin duten arren, Lasarte-Orian 2020. urtean gora egin dute; 23 atestatu egin dira, hamabi denuntzia eta 37 urruntze-agindu ezarri dira”. Gainera, egun 102 urruntze-agindu indarrean daudela jakitera eman dute.

Egoera horren aurrean, gure haserre eta amorrua adierazi nahi ditugu. Aipatutako datuez gain, herriko eragile feministekin behar baino gehiagotan jarri dira harremanetan indarkeria matxista jasan duten emakumeak*, Udalak emandako erantzuna –edo erantzun falta– dela eta. Halaber, badakigu hainbat herriko emakume* Donostiara edo beste zenbait herritara jo behar izan dutela instituzioek erantzun egokia eman diezaieten. Xehetasunetan sartu gabe, esan nahi dugu kasu horietako asko zalantzan jarriak izan direla eta beste hainbati entzungor egin dietela. Datu horiek, jada, argi adierazten dute egoera jasaezina dela.

Baina hori gutxi izango balitz, herrian daukagun berdintasun-planak (2016-2019) -edo sasi planak- gure kezka oraindik eta gehiago areagotzen du. Zer dela eta?

1. Berdintasun-planaren lehen orrian Sorluzeko Udalarentzat egindako plana dela ikus dezakegu. Ez genekien Sorluz eta Lasarte-Oria plan bateratua egiten ari zirenik. Zer antzekotasun dute gure herriak eta Sorluzek?

2. Berdintasun-planak kudeaketa egituren atalean berdintasun-batzorde eta berdintasun-kontseiluak aipatzen ditu. Zein dira bi horiek? Nortzuk osatzen dute? Bildu al dira noizbait?

3. Berdintasun-planaren ebaluazioa ere, noski, urtero egitekoa omen. Nola da posible gauzatu ez den plan baten ebaluazioa egitea? Gainera, herriko eragileen inplikazioa beharrezkotzat jotzen dute ebaluazioa egiteko.

Adibide gehiago ere esan genitzake, baina aipatutakoak nahikoak iruditzen zaizkigu harpa-jotze honen argazkia antzemateko.

Eragile feministetako batzuk ere izan genuen Gizarte-Zerbitzuetako Sailarekin elkartzeko aukera, eta, zoritxarrez, argi geratu zitzaigun eragile feminista gisa guri gordetako tokia: zuriketa morerako apaingarriak, hain zuzen. Halaber, bertako langileak lanez gainezka daudela eta Udalak formakuntza nahikorik eskaintzen ez diela ere nabarmen ikusi genuen (berdintasun-planean formakuntza hori eskainiko dela jartzen duen arren).

Eta, hara non, gure “harridurarako” aurtengo aurrekontuetan ere, ez da aurreikusten ez berdintasun-teknikaririk, ez diru partidarik, ez eta urrats feministak egiteko borondaterik ere. Jakin badakigu, pandemia honek herrian bizi ditugun egoerak larriagotu egin dituela alor honetan ere, eta inoiz baino beharrezkoagoa dela egiazko berdintasun-plan bat, berdintasun-teknikari bat eta herritarrok merezi ditugun gizarte-zerbitzu duinak izatea.

Beraz, Udalari eskatzen diogu aitzakiak alde batera utzi, eta zuriketa moretik haratago, beharrezkoak diren baliabide guztiak abian jartzeko borondate politikoa erakustea, egoera larri honi erantzun egokia emateko. Pentsaezina da, 18.000 biztanletik gorako herri batek berdintasun-teknikari eta berdintasun-sailik ez izatea oraindik ere. Lotsagarriena da oinarritzko neurriez hitz egiten ari garela, beste hainbat udalek betetzen dituzten minimo horiez.

Ez da gehiegi eskatze kontua; Lasarte-Oriatar guztiontzako bizigarria den herri baten alde jar daitezkeen oinarritzko neurriak exijitzen ari gara:

- Berdintasun teknikari bat.
 - Berdintasun plana indarrean jarri eta modu eraginkorrean abiaraztea.
 - Gizarte Zerbitzuek behar gehien duten horientzako arta duina eskaintzea.
- Argi dugu, Lasarte-Oriako Udal Gobernuarentzat emakumeok* ez gaudela haien lehentasunetan. Guretzako ere bizigarria izango den Lasarte-Oria baten alde, aitzakiarik ez!
- Gora Borroka Feminista!



"Prozesua bake epaitegietan hasten da"

ALBERTO AGIRREZABALA LASARTE-ORIAKO BAKE EPAITEGIKO LANGILEA
Buruntzaldeako herrietan ere posible da abizenak euskalduntzea. Prozesuari ekin nahi dioten biztanleek euren bizitokiko bake epaitegietara joan behar dute

BURUNTZALDEA EUSKARA

Apelliduak abizendu nahi dituzten pertsonak, bizi diren herriko bake epaitegira joan behar dute. Lasarte-Oriakoan, besteak beste, Alberto Agirrezabalak egiten du lan. Hark azaldu ditu abizenak euskaldundu nahi dituztenek jarraitu behar dituzten urratsak.

Lasarte-Orian bizi naiz, 18 urte baino gehiago ditut, eta abizenak euskaldundu nahi ditut. Nora joan behar dut?

Bake epaitegira. Okendo plazan gaude, udaletxean bertan. Erregistro zibileko edozein kontsultarekin etorri behar da hona, hitzordua hartuta.

COVID-19a dela-eta, aldatu egin da zuen lan egiteko modua? Tramite hori egiteko, aurrez hitzordua hartu behar dut?

Bai. COVID-19aren aurretik ez zen beharrezkoa, baina orain bai. 943 37 16 29 telefonora deitu behar da [Lasarte-Oriako bake epaitegiko zenbakia da hori; eskualdeko beste herrietakoak 9. orrian kontsulta ditzakezue].

Bake epaitegira dokumentazioa eraman behar dut abizenak euskal grafiaz idatzeko prozesuari ekiteko?

Beharrezkoak dira NANaren kopia, erroldaren ziurtagiria eta jaiotzaren hitzez hitzeko agiria. Ezkonduta egonez gero, horren ziurtagiria behar da,



Alberto Agirrezabala, Lasarte-Oriako bake epaitegiko bulegoan. TXINTXARRI

eta, seme-alabak edukiz gero, haien jaiotza-ziurtagiriak.

Nire deiturrekin batera, seme-alabenak ere aldatzen dira?

18 urte baino gutxiago dituzten seme-alabei eragiten die gurasoen abizenak euskalduntzeak. Kasu horretan, biak etorri behar dira bake epaitegira, deiturak euskal grafiara ekarri nahi dituen eta bestea ere bai, haren baimena behar delako.

Ordaindu egin beharko dut abizenak euskalduntzeagatik?

Ez. Erregistro zibileko tramite guztiak doakoak dira.

Abizenak ez ezik, izena ere euskal grafiara ekar dezaket?

Bai. Legeak horretarako aukera ematen du. Prozedura berdina da, eta ekarri beharreko dokumentazioa ere bai.

Erraza da izen-deiturak euskalduntzea? Zenbat denbora iraun dezake prozesuak?

Erraza da, bai. Eskaera egiten da gure epaitegian, eta Donostiako erregistro zibilera bidaltzen dugu, haiek erabakia hartzeko. Onartzen bada, abizena euskaldundu duen pertsona horren jaiotzaren inskripzioan

jaso behar da, baita ezkontzaren eta seme-alaben inskripzioen alboan ere. Jaiotzaren inskripzioa Donostian bertan egonez gero, hamar bat egunetan egin dago. Beste herriren batean badago, denbora pixka bat gehiago behar da, baina, normalean, lau bat astean egin dago.

Nire abizenen grafia aldatu eta gero, lehengoarekin eginak dauden agiriak (NAN, gidabaimena, titulu akademikoak...) berritu behar ditut?

Bai, berritu egin behar dira, abizena aldatu egin baita. Aurrena, NAN agiria eta errolda, eta gero, beste guztiak.

Noiztik dute herritarrek abizenak euskalduntzeko aukera?

Abizenak euskalduntzeko prozesua 2000. urtean jarri zen martxan, 40/1999 legearen ondorioz.

Aurretik ez zen posible, beraz.

Erregistro zibileko legearen nondik norakoak ikusteko, abiapuntura jo behar dugu: hori 1957. urteko ekainaren 8ko legea da. 54. artikulua honela zioen: "Bataiatua izan denean ezarri zaion izena erabili behar da jaioberriak inskribatzeko. Izen-deitura horiek gaztelaniaz idatzita egon behar dute".

Artikulu hori berritu egin zuten hogeitau urte beranduago, 1977ko urtarrilaren 4ean indarrean jarritako 17/1977 legearen bitartez: "Jaioberriari eman zaion izena erabiliko da hura inskribatzerako orduan. Izen horrek Espainiar Estatuko hizkuntzaren batean idatzita egon behar du".

Erregistro zibilaren legearen hurrengo erreforma 1999an egin zuten, 40/1999 legearen bitartez. Izen-abizenak aipatu zituzten orduko horretan, ez izenak soilik: "Interesa duten pertsonak edo haren legezko ordezkariak hala eskatuta, Erregistro

Zibileko arduradunak ordezkatu egingo du eskatzailearen izena, Espainiar Estatuko hizkuntzaren bateko baliokidea den horrengatik". Hori 54. artikulua da. 55.ak, berriz, honela dio: "Interesa duen pertsonak edo haren legezko ordezkariak hala eskatuta, Erregistroko arduradunak hasi egingo du eskatzailearen deiturak aldatzeko prozedura, Erregistroan abizen horiek ez baldin badaude Espainiar Estatuko hizkuntza horren grafiara egokituta, gramatikalki zein fonetikoki". Orduan eman zen abizenak euskalduntzeko aukera zuzena, ordura arte deiturak aldatzeko prozedura erabili behar baitzen hori egin ahal izateko.

Zer eredu jarraitzen da izen-deiturak euskalduntzeko orduan?

Prozesu horretan oso garrantzitsua da Euskaltzaindiaren lana. Abizenak euskaratu nahi dituen pertsona batek Euskaltzaindiaren EODA Euskal Onomastikaren Datutegia [<https://www.euskaltzaindia.eus/hizkuntza-baliabideak/onomastika>] kontsultatu behar du, han azaltzen delako haren deiturak euskaraz nola idazten diren.

Apelliduak abizentzeko zenbat prozesu irekitzen dituzue urtean? Nolako da joera?

Urtero hamar bat espediente egiten ditugu abizenak euskalduntzeko. Azken urteetako joera kopuru horietan mantentzen da.

"ABIZENAK EUSKALDUNTZEKO TRAMITEA DOAKOA DA, ERREGISTROKO GUZTIAK BEZALA"

"Erraz egin nuela gogoratzen dut"

Eider Zubeltzu Loiarte hernaniarrak 2013. urtean euskaldundu zituen abizenak; ordura arte, Zubeltzu eta Loyarte izan ziren. "Senitarteko batek prozesu hori egin zuen; haren bitartez jakin nuen egitasmoaren berri", oroitu du. Zubeltzuk hiru seme-alaba ditu gaur egun. Deiturak euskaratzea erabaki zuenean, lehenengoarekin haurdun zegoen. "Abizenak euskalduntzeko arrazoi nagusia izan zen nire seme-alabek ere, jaiotzerakoan, deiturak euskaratuta izatea". Hernaniko bake epaitegira joan

zen tramitea egitera, eta honako hau kontatu du: "Prozesua erraz egin nuela gogoratzen dut".

Eider Zubeltzu Loiartek bezala, beste herritar ugari animatu izan dira deiturak euskal grafiara ekartzera, *apelliduak abizentzera*. Egun batzuk gorabehera, prozesuak hamar egunetik lau astera irauten du normalean. Buruntzaldea eskualdea osatzen duten sei herrietan —Andoain, Astigarragan, Hernanin, Lasarte-Orian, Urnietan eta Usurbilen— bizi

diren herritarrek aukera dute prozesu hori ekiteko. Herri horietako udalek euskarazko egitasmoak elkarrekin egiteko plan bat adostu zuten 2009-2010 ikasturtean; horretan jaso zuten, besteak beste, *Apelliduak abizendu*.

Euskaltzaindia eredu

Euskaltzaindiak osatutako EODA Euskal Onomastikaren Datutegia hartzen da eredutzat abizenak euskalduntzeko irekitzen diren prozeduretan. Erakunde horrek plazaratu dituen datuak hiru atal nagusitan daude sailkatuta: deiturak,

pertsona-izenak eta lekuak. Abizenak euskal grafiara ekarri nahi dituen pertsonak datutegi hori kontsultatu behar du, deitura euskaraz nola idazten den jakin nahi izanez gero.

EODAK 5.061 izen —emakumezkoenak, gizonezkoenak eta epizenoak, alegia, espezie bateko arra nahiz emea izendatzen dituenak— ditu jasota, eta 9.670 deitura. "Datutegiaren bidez, Akademiak berezko duen zerbitzu arauemailea gauzatu nahi du, gizarteari izen berezi horiek euskaraz nola erabili behar diren adieraziz, aholkatuz edota iradokiz".

Aguirre

Ametzaga

Aramburu

Arrechea

Arregui

Azcárate

Bengoetxea

Bordaberri

Churrua

Echarrri

Echeverria

Eguiguren

Escudero

Goicoechea

Gorrochategui

Gurruchaga

Ilarrregui

Iparraguirre

Izaguirre

Lascuain

Lerchundi

Mendivil

Michelena

Apelliduenak abizendu

Aurkeztu beharreko agiriak:

- **Errolda agiria** (Zure udaletxeko bulegoetan egingo dizute).
- **Jaiotzagiri literala** (Zure udalerriko Bake Epaitegian egingo dizute. Donostian erregistratuta bazaude, Donostiako Erregistro Zibilera joan behar duzu (Kalkutako Teresa plaza z/g 943 00 07 30).

- **NANaren fotokopia**

Egin beharrekoak:

- **Agiriak herriko Bake Epaitegira eraman.**
Bertan egingo dizute aldaketa.
Zalantzaren bat izan edo argibide gehiago nahi izanez gero, deitu herriko Bake Epaitegira:

Andoain: 943 30 08 20

Astigarraga: 943 33 52 36

Hernani: 943 55 28 36

Lasarte-Oria: 943 37 16 29

Urnieta: 943 00 83 45

Usurbil: 943 37 23 36

Informazio gehiago:

Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo Udaletako Euskara-zerbitzuetan

Aguirre

Ametzaga

Aramburu

Arretxea

Arregi

Azcárate

Bengoetxea

Bordaberri

Txurruka

Etxarrri

Etxeberria

Eguiguren

Escudero

Goikoetxea

Gorrotxategi

Gurrutxaga

Ilarrregi

Iparraguirre

Izaguirre

Lascuain

Lertxundi

Mendibil

Mitselena

Arraun Lagunak, nagusi Oriaren jaitsieran

Traineruen denboraldi-aurrea hasi da. Hondarribian, Legutianon eta Orion jokatu dituzte lehen hiru hitzorduak eta, azken horretan, Arraun Lagunak izan da garaile. Denboraldi honetan, Arraun Lagunak, Hondarribia eta Hibaika taldeetan izango dira herritarrak lehian

Txintxarri

Traineruak, berriro ere, bogan dira. Otsaila amaieran denboraldi-aurreko lehiaketak hasi zituzten eta dagoeneko Arraun Lagunak taldeak bandera bat altza du.

Denboraldi berri honetan hainbat herritar izango ditugu Euskotren mailako bi eskifaletan banatuta. Arraun Lagunak taldeko Lugañenen hiru herritar egon ahalko dira lehian. Iaz debuta egin zuen Aiora Belartietaz gain, Paula Gonzalez eta Izar Agirretxe herritarrak taldearekin entrenatzen ari dira. Horiez gain, urtebeteko atsedenen ostean, Hondarribiara itzuli da Intza Fernandez.

ARCKo 2. mailan, berriz, Gaizka Ormazabal izango da Hibaika taldean.

Garaipena

Egun, eskifaiak udako denboraldia prestatzen ari dira eta hainbat proba jokatu dituzte.

Lehen hitzordua otsailaren 28an izan zen, Hondarribiako 21. traineru jaitsiera; Euskadiko iraupen luzeko traineru txapelketa martxoaren 3an eta martxoaren 21en, Oriaren 27. traineru-jaitsiera jokatu zen.

Aurre-denboraldiko proba garrantzitsua izan ohi da Oriokoa: aurreko edizioan maila ezberdinetako 90 traineruk baino



Arraun Lagunakeko kideak, Oriaren jaitsierako banderarekin. EUSKO LABEL LIGA

gehiagok parte hartu zuten. Aurten, ordea, pandemiaren eraginez parte-hartzaile kopurua murriztu behar izan dute antolatzaileek, eta emakume zein gizonezko senior mailako eskifaiek bakarrik parte hartu dute; guztira, 30 izan dira.

Bertan izan ziren herritarrak dituzten hiru eskifaiak. Emakumezkoen mailan, Arraun Lagunak izan zen azkarrena, 14.42,03 minutuko denborarekin, eta Hondarribiak laugarren postuan amaitu zuen, 14.59,34.

Lugañeneko arraunlari Aiora Belartietak aipatu digunez, "hasiera-hasieratik trainerua oso ondo atera zen eta estropada guztian horrela jarraitu genuen. Irabazteko aukerak bazeudela bagenekien, azken finean neguan

lan ona egin dugulako. Baina diferentzia horrekin irabaztea ez genuen espero".

Gizonezkoen mailan, berriz, hemeretzigarren izan zen Hibaika, 21.25,92.

Bestetik, Euskadiko iraupen luzeko traineru txapelketan Intza Fernandez kide duen taldeak parte hartu zuen eta hirugarren amaitu zuten proba, 15:49,26.

Hondarribiko proban, berriz, Arraun Lagunakek hirugarren denborarik onena egin zuen (15.52,08), eta Hondarribiak, berriz, laugarrena: 15:57,44. Hibaikako mutilak hamaseigarren izan ziren, 23.03,28.

Asteburu honetan, martxoaren 27an, igandearekin, traineruek hitzordu berria dute: San Pedroko Testa.

Bost hilabeteren ostean, garaipena erdietsi du seniorrak

Ostadar Saskibaloia saileko taldeak Eskoriatza 63-47 gairitu du Maialen Chourraut kiroldegian

Txintxarri

Urriaren 18an jokatu zuen azken partida ofiziala Ostadar Saskibaloia saileko senior taldeak. Bost hilabeteren ostean, lehiara itzuli da talde urdin-beltza. Aldaketa batzuk izan dira, ordea. Egun 11 jokalaria ditu Ander Otaegik zuzentzen duen taldeak. "Uxue Anabitarte Erasmus egonalditik itzuli da, Denis Suazok taldea utzi du eta Leire Belartietak eta Yaiza Navarro Europa aldean daude ikasten".

Horretaz gain, guztiak batera entrenatzeko aukera gutxi izan dutela nabarmendu du entrenatzaileak. "Ostiralean lehenengo aldiz guztiak batera entrenatzeko aukera izan genuen eta larunbaterako prest ginen".

Gorabehera horiei aurre egiten jakin du talde urdin-beltzak eta garaipena erdietsi du martxoaren 20an jokaturako partidari.

Partidak ez zuen hasiera ona izan. Eskoriatzak erritmoa ezarri zuen lehen segundotik eta 2-8koarekin aurreratu zen. Lau minutu behar izan zituen Ostadar SKTko senior taldeak egoerara moldatu eta markagailuari itzulia emateko. Era horretara, laurden amaieran 16-12ko markagailua zegoen.

Bigarren laurdenean defentsalan handia egin zuen Ander Otaegiren taldeak; erasoan, berriz, ez zuten euren jokorik egiterik izan, 27-18.

Atsedendialaren ostean, partida puskatu zuen Ostadar SKT, 46-26. Talde-jokoa hobetu, kontraerasoan



Norgehiagokako irudia. TXINTXARRI

saskiratzeak lortu, eta defentsan zein errebotean nagusi izan ziren.

Azken laurdenak, aldiz, jokalaria guztiek minutuak izateko balio izan zuen eta bi taldeek saskiratze errazak lortzeko aukera izan zuten. 63-41eko markagailuak eman zion amaiera partidari.

"Lehen partidari garaipena lortzea beti da garrantzitsua. Hala ere, ez gaude guztiz gustura egindako lanarekin", adierazi du Otaegik.

Emaitza ezberdinak

Ostadar Sakibaloia saileko junior mailako errendimendu taldeak, berriz, Goierri UZ Baleike taldearen aurkako partida jokatu zuen Urretxun. Endika Marrahiren taldeak ezin izan zuen arerioa garaitu, 78-56.

Bestalde, junior partaidetza taldeak garaipenarekin hasi zuen denboraldi berria. Martxoaren 13an (larunbata) jokaturako norgehiagokan 33-41 irabazi zion Mondragon Unibertsitatea Ointxe taldeari.

Camposek, zilarra Gipuzkoako judo eta Ne wazako txapelketetan

LOKE judoko kideak tatamira itzuli dira lehiatzera. Almi Campos Euskadiko Txapelketarako sailkatu da

Txintxarri

LOKEko kideak pozarren daude, berriro ere, lehia hasi delako. Martxoaren 14an, junior mailako Gipuzkoako Txapelketan parte hartu zuen Almi Camposek; martxoaren 21ean, berriz, Ne

waza disziplinako Gipuzkoako Txapelketan izan da Campos, Abayuba Gutierrez taldekidea lagun zuela. Bietan zilarrezko domina jantzi du Camposek.

Ne waza edo lurreko judo txapelketan Camposek bi

borroka izan zituen, horietatik bat irabazi eta bestea galdu zuen. Ondorioz, bigarren postua eskuratu zuen.

Gutierrez, berriz, hirutan borrokatu zen, baina ezin izan zuen dominarik lortu.

Bestalde, judoko Gipuzkoako Txapelketako finalera iritsi eta borroka galdu zuen Camposek, txapeldunordetza eskuratuz.

Postu horri esker, Euskadiko Txapelketarako txartela lortu du judoka gazteak. Dena ondo bidean, maiatzean lehiatuko da.



Abayuba Gutierrez eta Almi Campos, Ne waza txapelketa hasi baino lehen. LOKE JUDO

Buruntzaldea IKT, "emaitzekin gustura"

Buruntzaldea IKTko igerilariek hainbat marka ondu dituzte azken asteetan jokatu diren Erkidegoen Arteko Espainiako Txapelketan eta Gipuzkoako Kluben Kopan. Zudairek, esate baterako, SM8 mailako Espainiako bi errekor berri ezarri ditu

Txintxarri

Nahia Zudaire Erkidego arteko Absolutu mailako Espainiako Txapelketan lehiatu da Euskal Selekzioarekin, Castellon. Igerilari gazteak emaitza ederrak lortu ditu lehiaketa honetan.

Zudairek lau probetan parte hartu zuen txapelketan: 50 m., 100 m. eta 400 m. libre probetan, 100 m. bizkar proban eta 200 m. lau estiloetan. Proba guztietan ederki ibili zen eta markak hobetu zituen ia lehia guztietan.

Esanguratsuen 400 m. librean egindako 5.06,32a da. Marka pertsonala izan ez arren, Oviedon egindako 5.06,21etik gertu ibili da gaztea eta, berriro ere, Paralimpiar Jokoetarako B gutxienekoa egitea lortu du. Gainera, proba horretako 200 metroko pasean, Zudairek bere marka pertsonala eta Espainiako errekor berri bat ezarri zituen kronoa 2.29,24an geratuz.

100 m. libre eta 200 m. lau estiloetan ere bere marka hobetzea lortu zuen kronoa 1.10,34an eta 3.04,99an geratuz, hurrenez hurren. Lau estiloetako probako marka SM8 klaseko absolutu mailako Espainiako errekor berria ere bada. Proba horretan gainera 50 m. tximeleta estiloko pasean marka ontzea ere lortu zuen, 36,71.

Bizkar estiloko 100 m. metro proban ere ez zen atzean geratu.



Zudaire Espainiako errekorra egin duela adierazten duen kanpaia jotzen. FEDEDDF

Marka berria egin zuen, 1.33,08a eta 50 metroetako pasean, distantzia horretako marka berria ere hobetu zuen, 46,06. "Proba hau ez da oso ohikoa Nahiaarentzat, baina beste estilo batean lehiatzeko aukera ona zenez, bertan lehiatu zen", adierazi du Borja Apeztegia Buruntzaldea IKTko prestatzaileak.

Hobetu ez zuen marka bakarra 50 m. libre probakoa izan zen. "Oraindik ere abiaduran igeri egitea kosta egiten zaio Nahia-ri".

Gipuzkoako Kluben Kopa

Bestalde, martxoaren 13an eta 14an, Gipuzkoako Kluben Kopan parte hartu zuen Buruntzaldea IKT taldeak. Igerilariak ahalik eta talde-sailkapen onena lortzeko

lehian aritu ziren eta horregatik, lortutako emaitzekin "gustura" daude igeriketa taldeko ordezkariek.

Buruntzaldea IKTko taldekideek 43 marka pertsonal berri egin zituzten, baita taldeko zazpi errekor hautsi ere.

Horri esker, neskek laugarren postua eskuratu zuten, mutilak bosgarren izan ziren eta sailkapen orokorrean bosgarren izan zen igeriketa taldea.

Aste Santuko oporraldiaren aurretik, azken hitzordu bat izango dute Buruntzaldea IKTko kideek, Euskadiko Federazioaren Kontrol Lehiaketako bosgarren jardunaldia. Ondoren, "ondo merezitako atsedena" izango dute igerilariek.

Eguraldia, protagonista Hipodromoko denboraldian

Martxoaren 19ko jardunaldian, euri eta lokatz artean trostan ibili behar izan dute zaldiek eta jockeyek

Txintxarri

Hipodromoko negu-udaberriko denboraldiak aurrera darrai. Zaldien zaletuek bi jardunaldiz gozatu ahal izan dute Hipodromoan bertan, edo euren etxeetatik.

Lehen jardunaldian, euri-zaparradak eta lokatza izan arren, ez zen ezustekorik egon, eta faboritoek eraman zituzten sariak.

Martxoaren 19an, berri, eguraldi kaskarrari aurre egin behar izan zioten zaldi zein jockeyek. Hala ere, ikuskizun polita izan zen eta Mundaiz zubia sarian, Raul Ramos herritarra bigarren izan zen Orange Run zaldia zuzentzen.

Ordutegi aldaketa

Martxoaren 26an, berri, hirugarren jardunaldia jokatu da, eta aldaketa txiki bat egongo dela aurreratu dute Hipodromoko arduradunek: 15 minutu



Bigarren jardunaldiko irudia. TXINTXARRI

beranduago hasiko da. Beraz, lehen lasterketari 9:35ean emango zaio hasiera.

Miramar Jauregia saria, Bakearen usoa saria, Flemingi omenaldia saria, Estela saria eta San Telmo museoa saria izango dira lehian.

Hainbat saritan aurreko bi asteetan parte hartu duten zaldi eta behorrek, berriro ere, lehian ikusteko aukera izango da.

Lasarte-Oria, Cartujan

Gipuzkoako herrietan barrena dabil Realaren autobusa. Udalerrietako banderak jasotzen ari dira, apirilaren 3an Realak eta Athleticek jokatu duten Espainiako Kopako finalera eramateko. Astearte goizean jaso zuen Realak Lasarte-Oriakoa. Alkateak entregatu zion futbol taldeko lehendakariorde Joseba Ibarburi herriko armarrria duen bandera. Trukean, Realarena jaso du, udaletxean eskegitzeko.



TXINTXARRI

Buruntzazpiko junior kideak, podiumean berriro ere

Etxeberria eta Carbayedak Azpeitiako San Jose sarian lehen eta hirugarren izan ziren, hurrenez hurren

Txintxarri

Buruntzazpi txirrindularitza eskolako Haimar Etxeberria podiumeko maila gorenera igo da, berriro ere. Azpeitiako San Jose sarian izan zen, martxoaren 13an. Podiumean ez zen bakarrik

egon, bere taldekide Beñat Carbayedak hirugarren izan baitzen.

Buruntzazpi txirrindularitza eskolako lau juniorrek parte hartu zuten; Etxeberriak, Carbayedak, Fursenkok eta Orbegozok. Horiez gain, Viveros San Anton taldean

ari den Ander Altuna herritarra ere lehian izan zen.

Altzarte mendateak erabaki zuen proba, bigarren izotzean, lasterketa buruan Unai Zubeldia eta Haimar Etxeberria jarri baitziren. Bi korrikalari hauen artean jokatu zen garaipena eta helmugako azken zuzengunean erabaki zen garailea. Etxeberriak esprinta egin eta Zubeldiari aurre hartu zion azken metroetan helmugara bakarrik iritsiz.

Buruntzazpiko Beñat Carbayedak bikotearen atzetik



Etxeberria, helmuga igarotzen. UZTARRIA

zetorren taldearen buru igaro zuen helmuga, 42 segundora, eta hirugarren postua eskuratu zuen.

Altunak, Fursenkok eta Orbegozok, berri, 16., 46. eta 75. postuan amaitu zuten lasterketa, hurrenez hurren.

Kadete mailan berri, martxoaren 19ko asteburuan ez zuten atsedena izan eta Gaztetxo torneooko Zarautztarra saria lehiatu dute.

Buruntzazpiko bigarren urteko kadete Adur Tapia eta Eneko Aranguren izan dira lehian. Tapia 11. izan da; Aranguren, berri, 67. postuan iritsi da helmugara.

Futbol taldeak, lehian puntuak eskuratuz

Lasarte-Oriako taldeek jokaturako zortzi partidetatik hirutan bakarrik izan zen aurkako emaitza. Ostada SKTko I. Erregional eta Jubenilen Ohorezko mailako taldeak euren multzoko buru dira. Asteburu honetan, Michelingo kirol-gunean jokatu dira partida gehienak

Txintxarri

Jardunaldi ona izan da martxoaren 19-21ekoa Ostadar SKTko taldeentzat. Gehienek puntuak eskuratu zituzten eta I. Erregionalako eta Jubenilen Ohorezko mailako taldeen kasuan euren multzoko sailkapeneko buru jarri dira.

Erregional Ohorezkoak txapelketa berriko lehen puntua eskuratu zuen Lesakan Beti Gazteren aurka bana berdinduta.

1. Erregionalak bigarren garaipena erdietsi zuen. Lengokoak taldea 3-1 garaitu zuen.

Jubenilen Ohorezko mailako taldeak ere hiru puntuak eraman zituen Andoainen Euskaldunari 0-2 irabazi ostean.

Jubenileko Ostadar A taldeak puntu bakarra lortu zuen etxean Lengokoaren aurka, 1-1.

B taldeak, berriz, ez zuen punturik eskuratu ahal izan. 8-2 galdu zuen Usurbilen aurkako norgehiagoka.



Ohorezko Erregionalako partida. TXINTXARRI

Kadete mailan, Ostadar A taldeak puntua ekarri zuen Zizurkiletik. Danena 1-2 gaititu zuen.

Eta B taldeak Martutene Aren aurka 0-3 galdu zuen etxean.

Ostadar SKTko kadete Ohorezko mailako taldeak atsedena izan zuen.

Bestalde, Texas Lasartearra taldeko kadeteak Usurbilen 7-0 galdu zuen.

Asteburu honetan, zelaia alde izango dute futbol taldeek Michelingo kirol gunean jokatu baitira norgehiagoka gehienak.

Erregional Ohorezkoak lehiaketa berriko lehen puntuak bilatuko ditu Intxaurdiren aurka larunbatean.

Erregional Vasconia izango dute aurrez aurre, larunbatean.

Jubenil mailako taldeek Urnietaren aurka jokatu dute larunbatean. A taldeak Urnietan eta B taldeak, berriz, Lasarte-Orian.

Kadete Ohorezko taldeak Antiguokoren aurka neurtuko ditu indarrak igandean.

Kadete mailan, Ostadar A taldeak Euskalduna izango du arerio larunbatean etxean eta B taldeak Vasconiarena aurka jokatu beharko du igandean Donostiako Puio zelaian.

Ostadar SKTko jubenilen Ohorezkoak eta Texas Lasartearra taldeko kadeteak, ordea, atsedena izango dute.

Inguruko mendietan dagoen zaborrak LOTME kezkatzen du

Herritarrei bakoitzan bere zaborra bildu eta inguruko mendiak eta basoak zaintzeko deia egin die kirol elkarteak

Txintxarri

LOTME Lasarte-Oria Trail Mendi Elkarteko kideek azken hilabeteetan Andatza zein Buruntza mendietan aurkitu dutena salatu dute, ohar baten bitartez.

Mendi-elkartea "pozik" dago pandemiak mendi-ibilaldiak egiteko zaletasuna areagotu duelako: "Gure mendietan inoiz baino giro politagoa ikusten ari gara".

Baina horrek arazo bat sortu duela jakitera eman dute taldeko kideek: zaborra. Mendi taldeko



Zabor ugari jaso dute. LOTME

kideak aurkitu dituzten hondakin horiek guztiak biltzen ari dira; baina oharrean nabarmentzen dutenez, "lan handia dago

egiteko". Horregatik, LOTMEko kideek herritarrek kontzientziatu nahi ditu, inguruko mendiak eta basoak zaintzeko. "Badakigu gehienok gauzak ondo egiten ari zaretela eta gutxi batzuk direla ondo egiten ari ez direnak. Baina, mendi tontorrean edateko latak edo botilak igotzen baditugu, zergatik ez ditugu berriro lata horiek edo botila horiek hutsik jaisten? Hori adibide bat besterik ez da, beste era bateko zaborrak ere ageri baitira gure mendietan: musukoak, patata poltsak, tabako kaxak...", adierazi dute

Era horretara, LOTMEk herritarrek animatzen ditu, bakoitzak bere aldetik, mendia garbi mantentzera. "Modu horretan, gure mendiez gozatzeko aukera izango dugu denok, eta gure gailurrek ez dute zabortegi itxura izango".



Ostadar Ipar martxako kideak, irteeratako batean. Artxiboko irudia. OSTADAR I.M.

Ipar martxa taldeak apirilean hasiko du ohiko jarduna

Ekainera arteko ibilbideak ere jakitera eman dituzte. COVID-19aren aurkako neurri guztiak jarraituko dituzte

Txintxarri

Ostadar Ipar Martxa taldea Eguberrien ostean martxan jarri zen arren, pandemiaren garapenak jarduera etetea ekarri zuen. Egun txertaketak hasi direla eta intzidentzia tasa baxua dagoela, entrenamendu eta irteerei ekitea erabaki du taldeak.

Apirilaren 7an hasiko dira entrenamenduak. Asteazkenetan, 19:00tan, eta ostegunetan, 10:00etan bilduko dira Askatasunaren parkean saioak egitera.

Bestalde, ekainera arte egingo dituzten txangoak ere aurreratu dituzte. Apirilean bi ordu eta erdiko ibilbidea egingo dute Txokoaldera. Hitzordua, apirilaren 24an, larunbatearekin 10:00etan da, Okendo plazan.

Txaldatxurreko lubakiak bisitatzea joango dira, maiatzaren 22an eta ekainaren 19an, berriz, Lasarte-Oriako mugak ibilbidea egingo dute.

Azken txango horrek lau ordu irauten duen arren, nahi duenak ibilbide erdia egiteko aukera duela azpimarratu du Ostadar Ipar Martxa taldeko arduradunak.

COVID-19aren aurkako neurriak

Entrenamendu eta irteera bakoitza baino lehen, parte-hartzaileei tenperatura hartuko zaiela jakitera eman dute taldeko arduradunek.

Gainera, kopuru txikiko taldeak egingo direla nabarmendu dute, baita talde bakoitzak arduradun bat izango duela ere. "Seiko taldeak egingo ditugu elkartzen garenean. Rosa, Junkal, Lurdes, Kontxi eta Begoña izango gara arduradunak eta eta jendeak arduradunek esandakoari kasu egin beharko dio".

Guztia ondo joatea eta kideek jarduera ezberdinekin gozatzeko espero dute arduradunek.

Ostadar SKTren Txirindularitza porra martxan

Ostadar SKTk lau itzulien porra antolatuko du lehen aldiz eta horrek aldaketa batzuk dakartzan txartelaren prezioan, baita sarietan ere.

Aurten sari nagusia 1.600 eurokoa izango da. Saria lortu ahal izateko derrigorrezkoa da lau porratan parte hartzea eta lauetan boleto irabazleak izen berdina izatea.

Porra bakoitzeko lehenak 400 euro irabaziko ditu, bigarrenak 200 euro eta etapako 65 euroko saria egongo da. Horretaz gain,


porrako sei urdaiazpiko zozketatuko dituzte parte-hartzaile guztien artean.

Txartelek 8 euro balioko dute eta ohiko tabernetan edo elkarte webgunean bete ahaliko dira. Webgunetik ordainketa txartelaz egingo da, eta hori egin ezean, boletoa ez da erregistratuta geratuko.

COVID-19ak eraginda itzuliren bat bertan behera geratuz gero, sariak aldaketak izango dituztela jakinarazi dute antolatzaileek.

Euskal Herriko itzuliko porra izango da lehena, eta apirilaren 4ra arte izango da txartelak egiteko aukera.

KOMIKIA



ZORION AGURRAK



Ane
Zorionak maitia. Asko maite zaitugu. Txoko marrubizko 6 muxu haundi.



Oier
Zorionak OIER!!!! Ondo pasa zure egunean! Azkenean iritsi da, 11 muxu potolo, etxekoen partez!!!



Izaro
Zorionak printzesa zure 5. urtebetetzean. Oso ondo pasa zure egunean. Muxu asko familia osoaren partetik. Asko maite zaitugu!!!



Jon
Zorionak potxolo! Konturatzerako 6 urte egin dituzul! Ondo pasa eguna ta muxu potolo askooo. Amatxo, familia eta lagunak.



Lur
Zorionak! Handitzen handitzen... Lau urte dagoeneko! Zein azkar igarotzen den denbora! Muxutxo pila familia guztiaren partetik.

HILDAKOAK

- Gregorio Aristorena Labayen.** Martxoaren 24an.
Sergio Couto. Martxoaren 23an.
Petronilo Arellano Herranz. Martxoaren 22an.
Petra Antolin Vian. Martxoaren 20an.
Maria Ibarbia Mujika. Martxoaren 17an.
María Pilar Errazquin Manterola. Martxoaren 17an.
Isidro Hernando Hernando. Martxoaren 13an.
Jesus Mari Azkue Aizpurua. Martxoaren 12an.

OHARRA

Odol ateratzeak

Lasarte-Oriako odol emaleek martxoaren 30an dute hileroko hitzordua. Antonio Mercero aretoan, arratsaldeko 16:30etik 20:10era odol ateratzeak egingo dituzte. Odola eman nahi duten herritarrek aurrez izena eman behar dute 943 00 78 85 telefonora deituz. Elkarteko kideek emaile ez diren herritarrak gonbidatu nahi dituzte odola ematera, odola beharrezkoa baita.

GUTUNAK

Skate parkearen eztabaida argitze aldera

ZABALETA AUZOLAN

Zabaletako bizilagunen auzo elkarteak skate parkearen inguruan sorturiko eztabaidaren inguruan hainbat argipen plazaratu nahi ditu:

Batetik, uste dugu garrantzitsua dela orain artean pasatako guztia testuinguruan jartzea eta epe luzeko begiradak duen garrantziarekin ulertzea. Egun, institutuaren ondoan dagoen Skate parkea zaharkitua dagoela agerikoa da eta hogei urte pasa dira berritu gabe. Baina, gainera, ezin dugu ahaztu aurretik ere herri honetako skaterak urte luzeetan udalarekin izandako borroka skate parke bat udalerrian eraikitzeko.

Oraingoan, udalak, aldebakartasunez, inolako galdeketa egin gabe, erabaki du skate parkea zabaletako frontoiaren atzeko lursailean jartzea. Ez die udalerriko skaterri galdetu ea leku hori den beraientzako onena ala erdigunetik gertuago legokeen beste bat gustukoago luketen. Ez dio Zabaletako auzotarrei galdetu ea lursail zehatz horretan horrelako ekipamendu bat jartzea nahi duten ala beste zerbitzu mota batzuekin aurretik premiazko beste beharrak dituzten asetzeko.

Hartara, udalaren asmoaren aurrean, auzo elkarteak iritzi bilketa egin du, auzotarren parte hartzea garrantzitsua dela uste baitu. Iritzi asko jaso dira, eta esan beharra dago gehiengo handi batek, kokapen horrekiko aurkakotasuna azaldu duela. Noski, jakin badakigun arren aldeko jarrerak ere badaudela, normala den bezala. Hori bai, arrazoiak aztertuz gero, aldekoen artean skate parke bat izatearen gogoia da argudio nagusia, eta kontrako arrazoiak berriz, askoz gehiago eta pisuzkoak direla esan genezake. Guk auzo elkarteko zuzendaritzatik hurrengoak azaldu ditugu:

- Udalerrri guztiko gazteentzako irisgarriagoa izan beharko luke skate parkeak. Argi dago zabaletako aldapa muga fisiko garrantzitsu bat dela eta horrek erraz iristea zailtzen duela. Gainera, udalerrriaren aldirietan jarri beharrean, erdigunetik gertuago eraiki beharko litzatekeela uste dugu.
- Frontoira eta kirol kantxetara igo ohi den jende asko motordun ibilgailu pribatuetan igotzen da, eta skate parkea zabaletan eraikitzeak joan etorri hori handituko luke. Horrek ez dakarkio onurarik auzoari: aparkalekuak gutxitzen ditu, trafikoa eta arriskua handitzen du, eta mugikortasun jasangarri printzipioaren aurka doa.
- Ekipamendu berri hau udalerrri osoko erabiltzaileei zuzendua dago eta ez dio auzoko tokiko beharrei erantzuten, jatorriz hirigintza plangintzan aurreikusita

zegoen moduan. Gainera, kirola praktikatzeko ekipamendu eta espazio nahikoa dago auzoan bestelakoekin alderatuta, eta bestelako hainbat beharri erantzun beharko lioke lursail horretako ekipamendu berriak gure ustez. (Eremu estaliak, Osasuna, hezkuntza, kultura, aisialdia, administratiboa, elikagaien hornidura,...)

- Frontoia eta bere ingurua duela bi urte urbanizatu ziren, eta beraz, ez du inolako zentzurik egin berria hausteak.
- Partzela horrek gaur egun badu erabilera auzotarren aldetik. Erabilera definitu gabeko partzela izateak askotariko jarduerak egiteko aukera ematen du eta horrela izaten ari da. Beste batzuen artean, frontoian espaziorik ez dagoenean bere atzeko horman jokatzeko jendeak, kantxa okupatua dagoenean, bere ordezkio izan ohi da, joko libre praktikatzeko da, auzoko festetan edo ekimenetan erabilera anitzak izan ditu eta abar.
- Auzoa oraindik eraikitzen ari da eta bertara biztanle berriak etortzen ari dira. Beraz, etorkizunean auzoak izan ditzakeen beharrak ezin dira oraindik behar bezala identifikatu. Definitu gabeko partzela horrek etorkizunean beharrezkoak izan daitezkeen erabilerak jaso litzake eta egungo egoeran mantentzeak aukera hori bermatzen du.

Bigarren, auzo elkarteak ez da inoiz skate parkea eraikitzearen aurka agertu, beste arrazoi batzuen artean, ez delako inor esateko udalerrian kirol ekipamendu horren beharra dagoen edo ez. Soilik kokapen zehatzaren inguruan agertu du bere aurkakotasuna. Eta noski, elkartearen partetik, skateboardingaren balore positibo guztiak errespetatu eta positibotzat jotzen dira, beste hainbat kirolekin pasa ohi den moduan.

Lasarte-Oriako aurrekontuei dagokionez, alderdi politikoak dira skate parkea behar den ala ez balioetsi, eta, beraiek pentsatzen dutenaren arabera, bozkatu dutenak. Erabaki horretan, Zabaletako bizilagunen auzo elkarteak ez du inolako zerikusirik izan.

Azkenik, kokapena arazoa izan bada, udalaren malgutasun falta da agerian geratzen dena. “Zabaletako lursail horretan edo inon ez” premisa beste guztiaren gainetik jartzea ez baita bidezkoa inorentzat. Ezinbestean, argi dagoelako beste leku batzuetan ere koka daitekeela ekipamendua.

Beraz, udalari eskatzen diogu, etorkizunean, horrelako arazorik sor ez dadin eta atzera erabakien errua elkarte baten edo bestearen gainean jarri aurretik, aurre prozesuen bidez, elkartearen eta herritarren parte-hartzea behar bezala bermatu, luzera begirako ikuspegiarekin jokatu, eta ondoren, oinarri sendoeekin, proposamenak egin eta erabakiak hartu ditzala.

AZOKA TXIKIA

LANA

ESKAITZA

Biyak Bat adinekoen egoitzak bi langile behar ditu: podologo bat eta gizezkoen ile-apaintzaile bat. Gainera, taberna kudeatzeko langileak ere behar dituzte. Interesatuak egoitzara hurbildu behar dira astearteetan eta ostegunetan 10:30etik 12:30era.

ESKARIA

Lan bila nabil, pertsona zaharrak edo haurrak zaintzeko prest, interna bezala, orduka, gauetan, asteburuetan. Telefonoa: 722 17 81 77.

Adineko pertsonak edo haurrak zaintzeko eskaintzen dut nire buruak. Paperak eguneratuta dauzkat. Harremanetarako zenbakia, 651 51 92 69.

Emakume euskalduna lan bila. Orduka lan egingo nuke. Etxeko lanetan, garbiketan... esperientzia handikoa eta profesionala garbiketan. Harremanetarako zenbakia, 673 55 62 89.

Haurrak zainduko nituzke, ikastolara sartu bitartean. Harremanetarako zenbakia, 630 68 27 16.

Neska euskaldun bat eskaintzen da astean bi egunetan eta arratsaldean etxeko lanak egiteko edota umeak zaintzeko. Harremanetarako zenbakia, 646 48 58 11.

Haurrak zaindu, etxeko lanak egin, orduka pertsona adinduek zaindu edo tabernetako garbiketa lanak egiteko pertsona eskaintzen da. Harremanetarako zenbakia, 676 18 84 11.

Pertsona eskaintzen da etxeko garbiketa lanak egin, leihoak garbitu, adineko pertsonak paseatzeko edo umeak zaintzeko. Orduka edo externa. Harremanetarako zenbakia, 619 35 58 19.

Pertsona serioa eta arduratsua eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interna modura, asteburuetan edo ospitaleko zaintza egiteko. Lanean hasteko prest. Harremanetarako zenbakia, 663 48 84 38.

Pertsona eskaintzen da pertsona helduek zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Externa, orduka, gauetan edo ospitalean gauak egiteko prest. 634 27 81 98.

SALEROSKETA

SALDU

Bigarren eskuko Silver Cross Surf kapazu + paseoa aukia + Maxicosia. Arina, erosoa eta erraz erabiltzekoa. Oso konpaktua. Paseo poltsa opari. Dena 250 euro. 646 824 466.

NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak soilik kobratuko dira soilik

TAMAINA BERRIA

Modulo txikia. 12 € (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20 € (BEZ barne) publizitatea@ttakun.eus 646.824466

ESKELA

ESKELAK JARTZEKO

TEL: 943 37 14 48
edo TXINTXARRI erredakzioan

- Eskela Txintxarri paperean: 80 €
- Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: 90 €

Txintxarri: doan eta euskaraz. Lasarte-Oriako etxe guztietan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 26 DE ORUE
LARUNBATA, 27 ACHA-ORBEA
IGANDEA, 28 ACHA-ORBEA
ASTELEHENA, 29 DE MIGUEL
ASTEARTEA, 30 LASA
AZTEAZKENA, 31 GIL
OSTEGUNA, 1 GANDARIAS-URIBE
OSTIRALA, 2 GANDARIAS-URIBE
LARUNBATA, 3 GANDARIAS-URIBE
IGANDEA, 4 GANDARIAS-URIBE
ASTELEHENA, 5 GANDARIAS-URIBE

ASTEARTEA, 6 DE ORUE
AZTEAZKENA, 7 DE MIGUEL
OSTEGUNA, 8 LASA
OSTIRALA, 9 GIL
LARUNBATA, 10 URBISTONDO
IGANDEA, 11 URBISTONDO
ASTELEHENA, 12 ACHA-ORBEA
ASTEARTEA, 13 URBISTONDO
AZTEAZKENA, 14 ACHA-ORBEA
OSTEGUNA, 15 DE ORUE

EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00

DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00

A. Etxebarria, 'Cuevas':
Andrea kalea 48, Hernani.
943 55 17 93

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira. Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

txintxarri

Etxe ondoan, kalean, auzoan... gertutasunez eta euskaraz

Hurrengo Txintxarri paperean
apirilaren 16an argitaratuko dugu

Bitartean, jarraitu herriko albisteak sarean: www.txintxarri.eus

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Administrataria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez,
Maddi Zaldúa eta
Maitane Aldanondo.

Publizitatea

Irati Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola,
Gorka Alvarez, Jexux Artebe,
Maidor Galardi, Mikel Yarza,
Nerea Segura, Lierni Rekondo eta
Aizpea Amas.

Banatzzaileak

Julene Iraola, Uxue Odriozola, Lide
Hidalgo, Egoitz Epelde, Erlantz
Ezeiza, Iker Lanchas, Iñigo Garcia,
Olatz Bardaji eta Igone Mendizabal.

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943 37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/94

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.350 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.



LASARTE-ORIA Antzerkiaren eguna. Antzerkiaren aldeko aldarrikapenak mundu osoan zehar zabalduko dira martxoaren 27an, diziplina artistiko horren nazioarteko egunean. Lasarte-Oriara ere iritsiko dira, Kukuka antzerki eta dantza eskolaren eskutik. Indarrean dauden osasun-neurriak aintzat hartu, eta egoerara moldatutako egitaraua prestatu dute. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, ekintza guztietako aforoa mugatua izango da, eta beharrezkoa izango da aurrez izena ematea, telefono honetan: 655 84 73 45. Lasarte-Oria, larunbata 27, 12:00etan.

LARUNBATA 27

LASARTE-ORIA Tailerrak
Nerabe eta helduentzako antzerki-tailerrak egingo dituzte. Sasoeta eta Garaikoetxea-Landaberri ikastetxeak, 10:00etatik 11:30era.

LASARTE-ORIA Antzerkia
Martintxo euskararen bila ipuin antzeztua eskainiko du Xabi Terronesek. Sasoeta ikastetxeko gimnasioa, 12:00etan.

LASARTE-ORIA Emanaldia
Kukuka antzerki eta dantza eskolako antzerkiko ikasle eta irakasleek emanalditxoak eskainiko dituzte. Okendo plaza, 17:00etatik 19:00etara.

LARUNBATA 27

LASARTE-ORIA Mobilizazioa
Errausketarik ez, ez hiri hondakinak, ez industrialak lelopean Zubietako erraustegira martxa antolatu du Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak. Lasarte-Oriatik Erraustegira egingo da ibilaldia. 12:00etan, erraustegiaren sarrerara iristean konzentrazioa egingo dute. Okendo plaza, 11:00etan.

IGANDEA 28

LASARTE-ORIA Ekitaldia
Bultza euskaltegiak! Bultza euskara izeneko dinamikaren barruan, 22. Korrika amaitu behar zuen egunean, AEK euskaltegiek ekitaldia xumeak antolatu dituzte hainbat herrietan. Lasarte-Orian, ekitaldia Okendo plazan izango da. Erik Arzallusek gidatutako emanaldiak hainbat

parte-hartzaile izango ditu oholtza gainean:

- Tomax Arruti eta Pontxo Moralesek txalaparta-doinuekin hasiko dute ikuskizuna.
- Earra! bertso-eskolako kideek saiotxo egingo dute.
- Ione Zabala artistak mural bat margotuko du.
- Maider Segurola kazetariak AEK-k prestatutako idatzia irakurriko du.
- Euskal Herrian euskaraz abestia kantatuko da.

Pandemia dela eta, indarrean dauden osasun-neurriak beteko dira. Horregatik, plazan jarriko duten eremuko edukiera mugatua izango da: ezingo dira ehun pertsona baino gehiago sartu. Okendo plaza, 12:00etan.

ZINEMA

LASARTE-ORIA	Igandea: 16:30.
MANUEL LEKUONA	El profesor de persa Larunbata: 19:00. Igandea: 19:00. Astelehena: 19:00.
Non dago Mikel? (JBGA)	Ostirala: 19:00.
Caminho Longe (JBGA)	Larunbata: 19:00.
Entre nosotros	Igandea: 19:00.
ANDOAIN	
BASTERO	
Academia Cranston: Escuela de monstruos	Larunbata: 16:30.
HERNANI	
BITERI	
Bikes	Larunbata: 16:00. Igandea: 16:00.
La última gran estafa	Larunbata: 19:00. Igandea: 19:00. Astelehena: 16:30.

Euskal gatazka politikaren ondorioak

Okendo Zinema Taldeak euskal dokumentalen zikloko bigarren saioa antolatu du asteburu honetan. Ostiralean, martxoaren 26an, Mikel Zabalzaren heriotzaren gaineko *Non dago Mikel?* dokumentala eskainiko dute. Larunbatean, berriz, herbesteratutako euskal presoen gaia jorratzen duen *Caminho Longe* lana ikusi ahaliko da. Hori dela eta, zine forumeko lagunek gonbidatuak izango dituzte, Miguel Angel Llamas 'Pitu' eta Txaber Larreategi dokumentaletako zuzendariak, hain zuzen ere. Jatorrizko hizkuntzan eskainiko dira eta gatzelerazko azpizidatzizkiak izango dituzte.

LABURPENA

Non dago Mikel?
Zuzendaritza eta gidioa: Miguel Angel Llamas, Amaia Merino. **Muntaia:** Amaia Merino. **Ekoizpena:** Miguel Angel Llamas, Izaskun Arandia. **Musika:** Gorka Pastor. **Herr.:** Euskal Herria (2020). **Iraupena:** 80 minutu.



Argitu gabeko desagertzea

Non dago Mikel? dokumentalak Mikel Zabalba nafar gaztea desagertu zeneko kontakizuna egiten du. 1985ean, Guardia Zibilak ETAko militante batekin nahasi eta atxilotu zuen. Zabalba desagertuta egon zen 20 egun horietan, bertsio ofizialak eragindako mesfidantzak bultzatuta jokatu zuen euskal gizarteak eta bizirik aurkitzeko esperantza ahuldu ahala, Euskal Herriko kaleetan oihu bat adituko zen gero eta ozenago: 'Non dago Mikel?'

Bere gorpua azkenean Bidasoa ibaian agertu zenean, protesta ugari egin eta eztanda sozial handiak egon ziren. Zabalba torturatuta hil zela uste zuen jendeak oro har, baina inoiz ez zuten inor ez epaitu ez zigortu. 2020ko azaroan 35 urte bete dira Zabalba hil zenetik, eta bere familiak egia jakin nahian jarraitzen du. Azken asteetan Mikel Zabalzaren kasua puri-purian egon da bere desagertzeari buruzko audio batzuk argitara atera baitira.

LABURPENA

Caminho Longe
Zuzendaritza eta gidioa: Josu Martinez eta Txaber Larreategi. **Argazkia:** Hibi Castro Egia. **Muntaia:** Raul Lopez. **Musika:** Joserra Senperena. **Herr.:** Euskal Herria (2020). **Iraupena:** 70 minutu.



Etxera itzultzeko beharra eta arriskuak

Josu Martinezek eta Txaber Larreategik Alfonso Etxegarai eta Kristiane Etxaluzen itorioari buruzko *Sagarren Denbora* dokumentala grabatu zuten 2009. urtean eta berriro ere haiekin bildu dira istorioaren kapitulu berri bat argitara eman nahian, *Caminho Longe*. Alfonso Etxegarai Atxirikak (Plentzia, 1958) bizitzaren erdia baino gehiago eman du Sao Tome eta Principe irla txikian. 1985ean, Frantziak deportatu zuen eta Espainiako agintariak

Ekuadorrera bidali zuten. Han torturatu zuten eta geroago Sao Tomera igorri. Ordudanik linbo legal batean egon da, pasaporterik eta bisadorki gabe. 10 urte igaro dira eta gurean egoera aldatu da. Orain, etxera itzultzeko bideari ekingo dio Kristiane Etxaluze adiskide nekaezinarekin batera. Itzulera-bidaia abiatze eguna du dagoeneko, baina bidaiak hamaika galdera sortzen ditu. Hala nola, atxilotua izateko arriskua dakar Euskal Herrira itzultzeak.

DESKONTU PAREGABEAK!

ALTZARIAREN AZOKA URNIETAN

MARTXOAK 22-28

Ordutegia: 9:30-13:00 / 16:00-19:30.
IGANDEAN, 10:00etatik 14:00etara.

JARRAI GAITZAZU!
#muebles_iturbe

Igarategi Industrialdea 70
(Hernaniranzko tren-geltokiaren errepidea) 20130 URNIETA
M. 688 632 191 T. 943 552 750
mueblesiturbe.com

iturbe
SUKALDEA, ETXEA & DEKORAZIOA

Etixerako gailu ezinbestekoak diseinu ederrenekin

ZUKUGAILUA **IRAKINONTZIA** **TXIGORGAILUA** **PINTZA MAGNETIKOAK**

ELECTRICIDAD ARREGUI

600 857 586
www.electricidadarregui.com
tienda.electricidadarregui.com
(on-line denda)

Kale Nagusia 39 - LASARTE-ORIA - Tel. 943 36 10 80 - Tel/Faxa: 943 37 25 21

Ttakun Kultur Elkartea

Zozketa!

Ttakun Kultur Elkarteko bazkide zara?

Eskuz egindako **BI KOADERNO** zozkatuko ditugu izena ematen duten bazkideen artean.

Eskuz eta betez ere **MimoZ** egindako **kuaderno txiki eta handi** bat eskura ditzakezu. Eman izena martxoaren 28a baino lehen.

MimoZ KOADERNAKETA ENCUADERNACIÓN
@mimozkoadernaketa

harpidetza@ttakun.eus helbidean | 646. 82 44 66 (whatsapp)

2MÓ 229€

betaurreko progresiboak (batzuk eguzkitakoak izan daitezke)

Kontsultatu optikan kanpainaren ezaugarriak.

SPRING IS MÓ

Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE-ORIA

MULTIÓPTICAS

www.multiópticas.com